



EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 27koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez luzatu egiten baita diru-zuzkidurak gauzatzeko eta justifikatzeko epea, deialdi honi dagokionez: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko ikastetxe publikoei diru-zuzkidurak ematea, 2019-2020 ikasturtean STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak) arloetan berrikuntza-proiektuak gara ditzaten. (L4. Estrategia STEAM y Materiales didácticos y Tecnologías de la Información y la Comunicación)

2019ko martxoaren 4an, Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko martxoaren 4ko Ebazpena argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei egin zitzairen, 2019-2020 ikasturtean STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak) arloetan berrikuntza-proiektuak gara zitzairen. (L4. STEAM Estrategia eta Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak). Ebazpen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko ikastetxe publikoei laguntzak ematea, 2019-2020 ikasturtean STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak) eredu hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak egin ditzaten.

Halaber, ebazpen horren 17. artikulua 1. apartatuan xedatzen denez, erakunde onuradunek, 2020ko ekainaren 15a baino lehen, berrikuntza-proiektuaren garapenaren memoria aurkeztu beharko dute <https://ikasgunea.euskadi.eus> webgunean. Memoria horretan, honako hauek adierazi behar dira: egindako jardueren zerrenda, horien garapena, proposatutako helburuen lorpen-maila, eta onartutako ekintzari egoztekoa den kostua.

Bestalde, ekainaren 4an, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren 2019ko ekainaren 4ko Ebazpenaren bidez esleitu ziren diru-zuzkidurak jakinarazi zitzaizkien ikastetxe publikoei. Ebazpen haren bidez, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei zuzendutako deialdia ebatzi zen, 2019-2020 ikasturtean STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak) arloetan berrikuntza-proiektuak garatzeko.

Covid-19aren pandemiak eragindako egoerak, ordea, ikastetxeen jarduera normala eragotzi du.

Ondorioz, jarduera batzuk aurreikusita eduki arren Covid-19aren ondoriozko alerta sanitarioko egoera dela-eta jarduerok zehaztutako epean egin ezin izan dituzten ikastetxeen kasuan, Ebazpen honen bidez luzatu egiten dira aipatu 2019ko ekainaren 4ko Ebazpenarekin eman ziren dirulaguntzak gauzatzeko eta horien justifikazioa aurkezteko epeak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Azaroaren 6ra arte luzatzea Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren 2019ko ekainaren 4ko Ebazpenaren bidez diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea. Ebazpen horren bidez, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei 2019-2020 ikasturtean STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea eta Matematikak) arloetan berrikuntza-proiektuak garatzeko zuzendutako deialdia ebatzi zen.

Bigarrena.- Azaroaren 6ra arte luzatzea hezkuntza zientifikorako, teknologikorako edo ekintzailtzarako berrikuntza-proiektuaren garapenari eta ebaluaziori buruzko memoria aurkezteko



epea. Memoria horretan, honako hauek jaso beharko dira: egindako jardueren zerrenda, horien garapena, helburuen lorpen-maila, eta onartutako ekintzari egoztekoa den kostua.

Hirugarrena.- Oraindik gauzatu gabeko jarduera aurreikusiren bat duten ikastetxeek, ekainaren 15a baino lehen, dokumentu bat aurkeztu beharko dute, aipatu jarduera eta hura gauzatzeko aurreikusitako plangintza deskribatzeko.

Laugarrena.- Aipatu luzapenak gorabehera, proiektua amaituta duten erakunde onuradunek ebazpenean ezarritako epean aurkeztu beharko dute dokumentazioa, deialdian xedatu ziren mekanismoak baliatuta.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka egiteko, ikastetxeek erreklamazioa jar diezaiokete Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariari, hamar egun naturaleko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 27a.

Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria.
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN